



EBAZPENA, 2020ko URRIAREN 14koa, HEZKUNTZA SAILAREN LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOAN JARDUNGO DUTEN KALIFIKAZIO BATZORDEAK IZENDATZEN DIRA

2020ko irailaren 28ko Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bitartez arautu da Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoan sartzeko Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien praktikaldia.

Aipatutako ebazpenan ezarritakoari, hots, praktikaldiak ebaluatu behar dituzten Batzordeen osaera eta horien argitarapena arautzen duenari, jarraituz,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoan praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten Kalifikazio Batzordeko kideak izendatzea. Horren osaera ebazpen honen eranskinean agertzen da.

Bigarrena.- Izendapen horien berri ematea Hezkuntza Saileko interneteko helbidean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>

Hirugarrena.- Kalifikazio Batzordeetako kideei aplikatuko zaie urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta ezespenari buruz ezarritakoa.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeari, hilabeteko epean, argitara eman eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 14a.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



ERANSKINA

MAISU-MAISTREN KIDEGOA

Batzordeburua: María Jose Morgado Matador

Kideak: M^a Idoia Bengoa Alzaga
Alberto Aparicio Albizuri
Iker Ayo Ansoleaga
Olga Lago Tejedor
Luis María del Valle García